

1. XEDEA

Prestazio honen helburua da jardunean egonda urte horretan hil diren 65 urterarteko edo 65 urte edo gehiago dituzten baina lan egiten dauden titularren alargunei ekonomikoki laguntzea da.

2. DESKRIBAPENA

Honetan datza:

- a) **600€-ko laguntza alargun bakoitzeko**, heriotzaren egunean 18 urte edo gutxiagoko seme-alabarik EZ BADU bere ardurapean.
- b) **1.200€-ko laguntza alargun bakoitzeko**, heriotzaren egunean 18 urte edo gutxiagoko seme-alabak BADITU bere ardurapean, betiere La Fundacióneko onuradun gisa alta emanda badaude.

3. BALDINTZAK

Eskaera	BEHARREZKOA
Nork eska dezake laguntza	Titularren alargunak.
Nork jaso dezake laguntza	Jardunean zeudela urte horretan hil diren titularren alargunak. Prestazioa eskatu ahal izateko, alargunak La Fundacióneko titularra izan beharko du prestazioa eskatzeko unean.
Antzintasuna	9 hilabeteko antzintasuna, prestazio hau eskatzen den egunean.

4. EPEAK

Laguntza eskatzeko epea	01/01etik 12/31ra. Eskabidea presentzialki aurkezteko La Fundación San Prudencioko bulegoetan 12/30era arte, eta interneten bidez aurkezteko 12/31ra arte (https://www.lafundacion.com/eu/). Prestazio hori kobratzeko eskubidea izateko, prestazioa indarrean dagoen urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gertatu behar du heriotzak. Abenduan gertatutako heriotzen kasuan, eskaera egiteko epea hurrengo urteko martxoaren 31ra arte luzatuko da.
Laguntza onesteko datak	Hilero onesten dira hilabete horretan eskatutako laguntzak.

Laguntza ordaintzeko datak	Prestazioa hurrengo hilaren 10ean ordainduko da, abenduan eskatutako prestazioen kasuan izan ezik, horiek urtarrilaren 31n ordainduko baitira. Ordainketa horiek titularraren kontuan sartu beharreko bankuko transferentzien bidez egingo dira.
Erreklamatzeko epea	Ordainketa egin eta hurrengo 15 egunetan.

5. INFORMAZIOA ETA ESKATZEKO MODUAK

Informazioa bitarteko hauetako edozeinetatik eska daiteke:

- La Fundacióneko bulegoetan, Dato kaleko 43an.
- 945 222 900 telefono zenbakian.
- info@lafundacion.com helbide elektronikoaren bidez.
- webguneko formularioaren bidez.
- gainera, laguntza hau eta beste batzuk gure webgunean kontsultatu eta eska daitezke: <https://www.lafundacion.com/eu/>.

6. DOKUMENTAZIOA

Prestazioen bidez garatutako jarduerak arautzen dituen prozedura orokorraren eduki osoa aplikatuko da.

1. Eskabidea osorik beteta (La Fundaciónen webgunetik deskarga daiteke, edo bulegoetan bertan eskatu, laguntza aurkeztean).
2. Hildako titularra agertzen den familia-eroldaren ziurtagiria (titularra hil aurreko datarekin eskatu behar da).
3. Heriotza-ziurtagiriaren fotokopia.

La Fundaciónek beretzat gordetzen du egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatzeko eskubidea.